

EUROPA HIRITARRENTZAT PROGRAMA 2014-2020

ERREFERENTZIA

Europa Hiritarrentzat Programa 2014-2020 (Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura ZN).

HELBURUA

Programa honek Europar Batasuna herritarrei gerturatzea du helburu eta, zehazki, honen ulermenean lagundu, bere historia eta aniztasuna, eta europar hiritartasuna sustatu eta hiritar-partehartze eta parte hartze demokratikorako baldintzak hobetu.

Programa hiru ataletan banatzen da:

1. Europaren memoria historikoa:

Zentzurik zabalenean, europar aniztasun kulturalaren eta balore amankomunen inguruko hausnarketa sustatzen duten ekintzen babesa, beti ere, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna aintzat hartuta. Europako historia modernoan izan diren erregimen totalitarioen zergatien inguruan hausnartu eta hauek sortutako biktimei omenaldia egiten dien ekimenentzat funtsak eskuragarri jar daitezke. Atal honek Europako historia modernoan izan diren bestelako erreferentzia puntu eta une definitzaileen inguruko ekintzak hartu beharko ditu bere gain. Iragana gainditzeko eta etorkizuna eraikitzeko, bereziki belaunaldi gazteenei bideratutako eta tolerantzia, elkarrenganako ezagutza, kultura arteko elkarriketa eta adiskidetzera sustatzen duten ekintzei lehentasun berezia emango zaie.

2. Konpromiso demokratikoa eta hiritarren parte-hartzea:

Hiritarren parte-hartzerako ekintzak, zentzurik zabalenean, eta Batasuna mailan elkarrekiko ulermena, kultura arteko elkarriketa, elkartasuna, gizarte-konpromisoa eta boluntariorarako baldintza lagungarriak sortzea ahalbidetzen duten proiektu eta ekimenak. Gazteriaren parte-hartze demokratikoa eta erabaki politiko eta ekonomikoen deliberamenduetan emakumeen parte-hartzea handitu nahi da.

3. Proiektuen analisi, zabalkunde eta emaitzen erabilerarako ekintza horizontalak.

Emaitzen transferibilitatea sustatu, inbertsioen etekina hobetu eta esperientziatik ikasteko aukera ematen duten ekimenak.

EKINTZAK

a) Elkarrenganako ikaskuntza eta lankidetzak jarduerak:

- Hiritarren bilerak, hirien arteko senidetzeak, senidetutako hirien sareak.
- Elkarrenganako aplikatutako proiektuak.
- Europar dimentsioa duten memoria-ekimenak.
- Beste hainbat gauzen artean, informazio eta komunikazio teknologietan edo hedabide sozialetan oinarritutako hartu-emanak.

b) Laguntza estrukturala honako erakundeei:

- Batasunaren interes orokorreko helbururen bat duten organoak.
- Europako Harremanetarako Guneak.

c) Batasunaren mailan azterketa ekintzak, hala nola:

- Programaren helburuen inguruko aferen gaineko azterlanak.

d) Kontzientziazio eta zabalkunde ekintzak lagundutako ekimenen emaitzak erabiltzeko eta balioztatzeko eta jardunbide egokiak aurkezteko, hala nola:

- Batasun eskalako ekintzak: hitzaldiak, oroitzenak eta sari banaketa ekitaldiak.
- Homologoaren ebaluaketak, adituen bilerak eta mintegiak.

ONURADUNAK

Integrazioa era hiritartasuna bultzatzen duten erakundeak

AURREKONTUA

185.468.000 euro

GAUZATZE ALDIA

2014-2020

INTERESEKO ESTEKAK

[Programa ezartzen duen arautegia](#)

[EACEA web orrialdea \(Hezkuntza, Ikus-entzunezko eta Kultura Agentzia Exekutiboa\)](#)

INFORMAZIO GEHIAGO**Europako Batzordea**

Hezkuntza, Ikus-entzunezko eta Kultura Agentzia Exekutiboa (EACEA)

Unit P7. Citizenship

Bour 135-139

B-1049 - Brusela

Tel.: 32-2 299 11 11

Fax: 32-2-296 23 89

eacea-p7@ec.europa.eu

Europako Batzordea

Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia

P7 Unitatea, Hiritartasuna

Hirien arteko senidetzea

Avenue du Bourget, 1 BOUR 00/13

B-1140 - Brusela

Fax: 32-2-296 23 89

lacea-p7@ec.europa.eu

ERABILERA KIROLEAN

Adibidez, honako proiektu mota hauek aurkeztu daitezke:

- Kulturarteko elkarrizketa sustatzen duten proiektuak kirolaren bidez;
- Tolerantzia eta elkarrekikotasuna sustatzen duten ekintzak, kirolaren erabilera kanal nagusia erabiliz;
- Kirol ekintzak dituzten proiektuak ikastetxetan, sentsibilizazioa, kontzientziarioa, kultura arteko elkarrizketa, eta abar... sustatzen dutenak.